


SUHAN



SARRERA:

Gure proiektua mahai bihurtzen den aulki bat da, irakaskuntza zentroetan ikasleak erosoago egon daitezen eta haien bizkarhezurra zaindu dezaten. Administrazio klase batean geundenean izan genuen ideia, irakasleak arbeletik kopiatzeko agindu zigunean. Ordenagailuetako klasean "U" forman gaudenez, arbelari bizkarra ematen genionez, gaur egun dauden aulkiekin oso zaila egiten zitzaigun mahaia aurrean izan gabe kopiaketa egitea, orduan zorrarazi zitzaigun aulkia mahai bilakatzea.



1. Balio proposamena.

Proiektu hau, labur esanda, ikasgelan eroso egoteko sortu dugu. Gure aulkia, informatika klaseetan, irakasleak arbelatik kopiatzeko agindua ematen duen bakoitzean eroso egoteko asmatu dugu. Gure proiektuaren balioa kualitatiboa izango da, gure bezeroek prezioa alde batera utzita, produktua aukeratuko dute, beraien ikasleak klasean eroso egoteko. Hona hemen gure produktua beste produktu batzuegandik bereizteko arrazoiak:

1. **Nobedadea:** Eskainiko dugun produktua, nobedade bat izango da irakaskuntza munduan, Bizkaian ez dagoelako enpresa bat ere ez, mota honetako aulkia ekoitzi eta saltzen dituztenak.
2. **Lana erraztea:** Gure aulkia lana errazteko balio du, ez zarelako hainbeste mugitu behar eta horrek, gure osasunean ere izango du eragina, ez dugulako bizkarra minduko. Oso erabilera errazeko aulkia da.